



Azpiegitura berria Legution, mugikortasun iraunkorragoa bultzatzeko

Legutioko Udalak Klima eta Energia Plana garatu du, eta aho batez onartu zen Udalak 2024ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran. Plan horiek egitea Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legeak jasotzen duen eskakizunetako bat da. Epe luzerako ikuspegiarekin, Planak tokiko erakundeek 2030. urtera arte hartu behar dituzten neurriak jasotzen ditu, energia aurreztearekin, energia berriztagarriak ezartzearekin, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztearekin eta klima-alaketaren inpaktuekiko erresilientzia handitzearekin lotutako nazioarteko eta autonomia-erkidegoetako helburuak lortzeko.

Plana 8 ildo estrategikotan egituratuta dago, eta 3. ildo mugikortasun jasangarria bultzatzeari buruzkoa da. Ildo horretan, besteak beste, 0 isuritako ibilgailuaren erabilera bultzatzeko helburua jasotzen da, eta, horretarako, lehen neurri gisa, Legutioko Udalak ibilgailu elektrikoak kargatzeko zutoin bat jarri du aparkaleku publiko batean, udal igerilekuetako kirol-instalazioaren ondoan.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko zutoina, Legutioko Udalak kudeatua, urriaren 15etik dago martxan. Zutoinean, erabiltzeko jarraibideak kontsulta ditzakezue, baita kargatzeko prezioa ere (€/kWh).

Legutioko Udala lanean ari da Klima eta Energia Planeko hainbat jardueratan. Udalaren webgunearen eta Kalerre aldizkariaren bidez, zuen eskura jarriko dugu 2025ean gauzatutakoari buruzko informazio zehatza.